1.	Espediente-zenbakia eta kontratuaren izena	**Espedientea**: 2026/026 Arges softwarearen lizentzien hornitzeko kontratua.
2.	Erakunde Kontratugilea (datuak) eta kontratugilearen profila	Biscaytik Fundazioa ("**Erakunde kontratugilea**"), honako helbidea duen Zugazarte Etorbidea 32, 48930 Getxo (Bizkaia). Telefonoa: 94 600 00 20 Kontratugilearen profila: http://www.kontratazioa.Biscaytik.eus/eu_perfil_contratante.asp
3.	Kontratuaren prestaketa eta esleipenean aplikatzeko moduko xedapenak	Harmonizatu gabeko arauketari lotutako kontratua: SPKLren 318.b) artikulua eta SPKLren Bigarren Liburuko I. Tituluaren I. Kapituluko 2. Atala.
4.	Kontratuaren xedea eta CPV (nomenklatura erreferentzia)	Kontratuaren xedea Arges softwarearen lizentzien hornidura kontratatzea da. CPV: 48000000-Software paketeak eta informazio sistemak.
5.	Gehieneko betearazte/iraupen epea	Kontratua gauzatzeko gehieneko epea 4 urtekoa izango da. Epea 2027/01/01etik 2030/12/31ra arte zenbatuko da
6.	Kontratuaren luzapena	Ez.
7.	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, kontratuaren ustezko balioa eta kontabilitateko sinadura.	Hau da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 99.000 euro, gehi 20.750 euro, BEZ gisa. LIZITAZIOAREN AURREKONTUAREN BANAKAPENA

ZUZENEKO KOSTUAK, BEZIK GABE	59.400 €
ZEHARKAKO KOSTUAK, BEZIK GABE	34.650 €
BESTE GASTU BATZUK, BEZIK GABE	4.950 €
GUZTIRA, BEZIK GABE	99.000 €

Kontzeptuan.Kontratuaren ustezko balioa 99.000 eurokoa da (BEZ gabe).

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	99.000 €
Luzapenak	0 €
Aurreikusitako aldaketak (baleude)	0 €
Zenbatetsitako balioa guztira	99.000 €

Kontabilitateko sinadura: 60700000

8. **Loteak dauden ala ez**

Ez, memorian justifikatzen den bezala.

9. **Loteen mugaketa eta eskaintza bateratzailerako aukera**

Ez dago halakorik.

10. **Prozedura mota, tramitatzeko modua eta prozeduran aplikatzeko moduko arauak**

Irekia.

Tramitazio arrunta. SPKLren Bigarren Liburuko I. Tituluaren I. Kapituluko 2. Atala.

Tramitazio elektronikoa, SPKLren 15. Xedapen Gehigarriaren araberakoa.

11. **Pleguak eta gainerako agiriak non eskuratu, eta lursaila bertatik bertara bisitatzeko aukera**

Erakunde Kontratugilearen kontratugilearen profila, aurreko 2. puntuan adierazi dena, eta Sektore Publikoko Kontratazio Plataforma.

Lursaila bertatik bertara bisitatzeko aukera: EZ

12. **Behin-behineko bermea**

Ez, memorian justifikatzen den bezala

13. **Behin betiko bermea**

Bai. Esleipenaren zenbatekoaren %5a.

Berme-epea: kontratua amaitu eta hilabetera 1 gehienez.

14.	Eskaintzak aurkezteko mugaeguna	2026ko azaroaren 19an, goizeko 10:00 arte.
15.	Kaudimen tekniko, ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko bideak	Kontratu honen esleipendun izan ahal izango dira baldintza hau egiaztatu dezaketen lizitatzaileak. baldintza horri dagozkion inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean argitu beharko dira, eta kontratua sinatzen den unean iraun: (i) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: • Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru bat izatea, kontratuaren balio estimatuari dagokion eta 7. puntuan adierazitako zenbatekoaren parekoa edo hortik gorakoa. Kaudimen-baliabide horiek egiaztatzea derrigorrezkoa izango da esleipendun gisa proposatutako lizitatzailearentzat, SPKLn ezarritakoarekin bat etorriz. Horretarako, honako hauek bidaliko dizkio erakunde kontratatzaileari: - Indarrean dagoen polizaren frogagiria edo ziurtagiria. (ii) Kaudimen teknikoa: • Gehienez ere azken hiru urteetan (2023, 2024, 2025) kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda; bertan, zenbatekoa, data, proiektuaren deskribapen laburra, soluzioaren oinarri teknologikoaren bertsioa eta horien hartzailea (publikoa zein pribatua) adieraziko dira, eta guztira 7. puntuan adierazitako balio estimatuaren % 70 edo gehiago metatu direla frogatu beharko da. Hainbat urtetako erreferentziak baleude, argi eta garbi adierazi beharko da urte bakoitzari dagokion zenbatekoa Erakunde kontratugileak hala eskatzen dionean emandako zerbitzuak eta egindako lanak organo eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira, jasotzailea sektore publikoko erakundea denean betiere. Jasotzailea subjektu pribatua denean, bestalde, azken horrek emandako ziurtagiria baliatuko da: enpresarian adierazpena eta horren esku dauden agiriak, emandako prestazioa egiaztatzen duten heinean. Ziurtagiri horiek zuzenean emango dizkio agintari eskudunak kontratazio organoari.
16.	Formula bidez	Ez du aplikatzen

zenbatu ezin diren irizpideei buruzko agiriak (B gutunazala)

17. Formula bidez zenbatzeko moduko irizpideei buruzko agiriak (C gutunazala)

Proposamen ekonomikoa eta formula bidez zenbatzeko moduko bestelako datuak Administrazio-klausula Bereziren Pleguko V. Eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztuko dira.

V. Eranskinarekin batera, enpresa lizitatzaileak memoria bat erantsi beharko du, non proposamenean konprometitutako kontziliazio-neurri guzti-guztiak deskribatuko dituen. Memoria hau C Gutun-azalean SOILIK erantsiko da.

Memoriarik eransten ez badu, ez da zuzengarria izango, eta horrek esan nahiko du ez dituela kontziliazio-neurriei dagozkion puntuak jasoko, V. eranskineko taulan markatu dituenak gorabehera. Era berean, markatutako neurriren baten deskribapena jasota ez badago, ez zaizkio neurri horri dagozkion puntuak esleituko.

18. Esleipen-irizpideak garrantzia gehienetik gutxienera, horien ponderazioa eta ebaluatzeko era

100 puntu gehienez, modu honetara banatuta:

A) Formula matematiko bat aplikatuta ebaluatzeko moduko irizpideak: 100 puntu (V. Eranskina), modu honetara xehakatuta:

- ✓ Balorazio ekonomikoa: 90 puntu

  Eskainitako orduko prezioa baloratuko da soilik. Puntuak irizpide hauen arabera banatuko dira:

- ✓ 90 puntu arte baloratuko dira, hurrengo formularen arabera:

$$\text{Eskaintzaren puntuazioa} = \frac{\text{Eskaintza Onenaren Balioa}}{\text{Aurkeztutako Eskaintzaren Balioa}} \times 90$$

- ✓ Eskaintza anormalki baxuak

  Eskaintza anormalki baxuak hautemateko parametro objektiboak Administrazio-klausula bereziren Pleguko 15. atalean ezartzen dira.

✓ Laneko eta familiako bizitza uztartzeko neurri zehatzak: 10 puntu.

10 puntu arte baloratuko dira: bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzeko neurri zehatzak, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeari buruzkoak. Azken horri dagokionez, Lizitatzaileak Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasuna sustatzeari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Legea aplikatzeko konpromisoa hartzen du, kontratua gauzatuko duten langileei dagokienez eta, batez ere, baliabide propioak, pribatuak nahiz komunitatekoak erabiliko ditu adin txikikoei eta mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta eskaintze aldera: zerbitzu txekeak, jantokiak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak, lanaldian hobekuntzak, eszedentzia, lizentzia edo baimenak, malgutasuna ordutegian, edota zerbitzua bera egokitu edota aldatzeko aukera. Enpresa lizitatzaileek ezingo dute eskaini Administrazio-klausula berezien Pleguko V. Eranskinean jasotako taulan agertzen ez den bestelako neurririk. V. Eranskin horretan aurreikusitako neurrien artean eskaintza gehien egiten dituen lizitatzaileak jasoko du puntuaziorik handiena. Besteek puntuazio txikiagoa lortuko dute, proportzioan, honako formula aplikatuta:

P= (NM/MOM) x 10

Azalpena: P (Lortutako puntuazioa) = NM (kontratua gauzatzerakoan lizitatzaileak hobetu ditzakeen neurriak) / MOM (hobetzeko neurriak kontuan hartuta, enpresa lizitatzaileen artean eskaintzarik onena) eta gehieneko puntuazioa 10ekoa izango da.

Kontratua burutu aurretik, enpresa esleipendunak jarduera guztiei eta jasotzaileei buruzko txosten zehatza eman beharko dio kontratuaz arduratzen den pertsonari.

B) Balorazio bidez ebaluatzeko moduko irizpideak: Ez du aplikatzen

19.	Formula bidez zenbatu ezinezko dokumentuak irekitzeko ekitaldiaren tokia,	Biscaytik Fundazioaren Lizitazio elektronikorako plataforma.

	eguna eta ordua (B gutunazala)	
20.	Formula bidez zenbatzeko moduko dokumentuak irekitzeko ekitaldiaren tokia, eguna eta ordua (C gutunazala)	Biscaytik Fundazioaren Lizitazio elektronikorako plataforma.
21.	Kontratua ez esleitu edota egiteagatiko edota prozedura bertan behera geratzeagatiko konpentsazioa	Bai, 150 euro.
22.	Prezioen berrikuspena	Ez.
23.	Aldagaien onarpena	Ez.
24.	Publizitate-gastuak eta zenbatekoa	Ez dago halakorik.
25.	Iragarkia EBAOra igortzeko data	Ez dago halakorik.
26.	Laneko kontratuen subrogazioa	Ez dago halakorik.
27.	Zigorrak	AKBPn (22. atala) jasotako zigor orokorrez, berariazko zigor hauek ezarri dira kontratuko baldintza teknikoak ez betetzeagatik.

28. Datu pertsonalen tratamendua

AKBPren 31. eta 32. puntuetan xedatutakoaren arabera, Biscaytik Fundazioa, zerbitzu hau ematen ari den bitartean, izango da:

.- Tratamenduaren arduraduna (31. puntua)	
.- Tratamendu-eragile (32. puntua)	X
.- Datu pertsonalen tratamendu barik	

29. Bestelako informazioa

Lizitatzaileek gutxienez 6 hilabetez mantendu behar dute indarrean euren eskaintza.

DEUC dokumentuaz gain, A gutunazalean, baldintza sozialei buruzko adierazpena gehitu beharko dute lizitatzaileek, administrazio-klausula berezien Pleguko **IV. Eranskin** gisa.

Azpikontratazioa: Lizitatzaileek behar bezala adierazi beharko dute eskaintzan kontratuaren zer zati azpikontratatu nahi duten: zenbatekoa, enpresariaren izen edota profila, eta azpikontratistaren kaudimen profesional edota teknikoaren inguruko baldintzak.

Administrazio-klausula berezien Pleguko **VI. Eranskina,** jokabide-kodeari buruzkoa, esleipendunak sinatua izango da; Biscaytik Fundazioak eskatuta.

Fakturazioa.

Fakturazioa urtero egingo da.

Ordaintzeko modua. Ordainketa Biscaytiken onarpena jaso denetik 30 eguneko epean egingo da. Ordainketa osorik edo zati batean egin ahal izango da, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga bakoitzean ordainduz. Kontratistari ordaindu ahal izateko, faktura elektronikoak igorri eta bidali beharko dituzu Biscaytik Fundazioaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez. Honako webgune honen bidez sar zaitezke bertara: http://www.biscaytik.eus.

Faktura elektronikoak sortu eta bidaltzeko, doan deskargatu ahal izango duzu Ef4ktur aplikazioa: Deskargatu softwarea (ef4ktur.eus).

Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez bidaltzen diren faktura elektronikoek formatu egituratua izan beharko dute eta elektronikoki sinatuta egon beharko dute; halaber, nahitaezkoa izango da onartutako ziurtagiri bat izatea. Plataformak onartutako faktura elektronikoaren formatua FACTURAE da (3.2 bertsioa eta 3.2.1 bertsioa); formatu horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, sar zaitez helbide honetan: www.facturae.es.